

# Esteribarko euskararen azentuaz

Iñaki Gaminde  
EHUko irakaslea

Artikulu honetan Esteribar haraneko Usetxi eta Eugi herrietako euskararen azentu-eredua aztertzen da. Nafarroako ekialdeko gainerako barietate askotan gertatzen den era berean, oraingo honetan ere, azentua 2<sup>←</sup>] eskemaren arabera ezartzen da erroari erants dakizkiokeen morfema guztiak erantsi ostean. Hala ere, azentu nagusi hau intonazioak baldintzatua dela ere iradokiko dugu, hots, hitzaren egonguneen arabera alda daitekeela proposatuko dugu.

Lanaren lehenbiziko atalean, artikulua oinari atxikita aplikatu behar diren erregela fonologikoak aurkeztuko ditugu. Bigarrenean lexikoaren azentua aztertzen dugu; hitz batzuen azterketa akustikoaren emaitzak oinarritzat hartuta, herri hauetako azentu-ereduaren erregelak emango ditugu. Hirugarren atalean, deklinabidearen azentua aztertzen da. Laugarrenean, erakusle, izenordain, leku-denborazko erakusleetatik erakarritako aditzondo eta galdetzailen azentu-ereduak emango dira. Azkenik, bosgarren zatian, Esteribarreko egoera soziolinguistikoa tamalgarria gogoan erabilia, jaso ditugun hitz guztiak euron azentuekin batera emateari interesgarri iritzi diogu.

The article analyses the model of the Basque language's accent in the villages of Usetxi and Eugi, within the valley of Esteribar (Navarre). As it happens in other varieties in the rest of East Navarre, accent is added in the way showed by type 2<sup>←</sup>], after adding all possible morphemes to the roots. However, we must say that this main accent is conditioned by intonation, and we will propose that it may change depending on the word's place in the sentence.

Firstly, the starting part of the writing exposes the phonological rules to apply when we add the article to the root. Secondly, the lexicon accent is analyzed; based on the results of some words' acoustical analysis, rules for the accent model within these villages are presented. The third part of the article analyses the declension accent. The fourth part gives the rules for the accent model of demonstratives, pronouns, interrogatives, place-time adverbs and numerals. Finally, in the fifth part, taking in mind the unfortunate socio-linguistical situation within the valley of Esteribar, it may be interesting to list all the words collected with their accents.

## 1. Artikuluaren egokitzapena

Artikulu honetan Esteribarko euskararen azentu-eredua aztertu nahi dugu. Horretarako 1984. urtean Eugin eta Usetxin egindako grabaketa<sup>1</sup> batzuez baliatuko gara. Esteribar, Bonaparteren (1869) sailkapenaren arabera, Hegoaldeko Ipar Goi Nafarre-raren barruan kokatuta agertzen zaigu.

Grabaketen helburua ez zen izan azentua aztertzea, lexikoa eta deklinabidea baino; horregatik, lexikoari dagozkion sarrera gehienak isolatuki grabatuak izan ziren eta singularrean baino ez. Hala ere, zintetan zehar agertzen diren materialek azentuari buruzko ondorio orokor zenbait ateratzea ahalbidetzen dutela uste dut.

Gure lanaren neurketak eta azterketa osoa egin ahal izateko, Inmaculada Hernáezek egindako AHOTSA aztergailua erabili dut, ordenagailu pertsonal batean instalatuta.

Lana bost ataletan banatuta aurkezten dugu; lehenbiziko atalean artikuluaren oinari atxikitzean, berau egokitzeko aplikatu behar diren erregela fonologikoak aztertuko ditugu. Bigarrenetan lexikoaren azentua aztertzen dugu; lehen zatian, hitz batzuen neurketaren emaitza akustikoak aurkezten ditugu, eta bigarren zatian herri hauetako azentu-ereduaren erregelak aztertzen. Hirugarren atalean, deklinabidearen azentua aztertzen da. Laugarrenean, gramatika kategoria zenbaiten azterketa egiten da. Azkenik, bosgarren zatian, jaso ditugun hitz guztiak euron azentuekin batera ematen ditugu.

Azentuari berari dagozkion datuak aztertzen hasi baino lehen, oinari artikuluaren eratzikitzean gertatzen diren bokal-aldaketak aztertuko ditugu. Horretarako honako erregelok proposa ditzakegu<sup>2</sup>:

- (1) a → ø / a \_\_\_\_\_
- (2) a → e / i,u (C) \_\_\_\_\_
- (3) [+Sil] → [-Sil] / \_\_\_\_\_ a
- (4) ë,ö → j,w/ \_\_\_\_\_ a

Deribazioak ondoko era honetara egin ditzakegu<sup>3</sup>:

	aza+ a	seme+a	begi+a	ero+a	esku+a	laun+a
Afij.	azaa	semea	begia	eroa	eskua	launa
(1)	aza	-	-	-	-	-
(2)	-	-	begie	-	eskue	laune
(3)	-	semëa	begje	eröa	eskwe	-
(4) <sup>3</sup>	-	semja	-	erwa	-	-
azk.	aza	semja	begje	erwa	eskwe	laune

Amaieran diptongoren bat dagoenean, ondoko datuen arabera kontsonantea (2) erregela aplikatu baino lehen sortzen dela proposatu behar dugu:

amorraya  
arraya  
loya  
maya  
sagarroya  
xaya  
zelaya

	sagarroi+ a	zelai+a	begi+a
afij.	sagarroia	zelaia	begia
i → y	sagarroya	zelaya	-
(2)	-	-	begie
(3)	-	-	begje
azk.	sagarroya	zelaya	begje

1. Grabaketak Koro Azkona eta Maribel Anduezarri zor dizkiet.

2. ë eta ö-ren bidez bokal hauek izaera silabikoa ez daukatela adierazi nahi dut, eta horrelaxe emango ditut lan osoan zehar.

3. Laugarren erregelak salbuespen asko dauzka, azkenengo lexikoan ikus daitekeen bezala.

## 2. Azentua

Atal honetako lehenbiziko zatian isolatuki jasotako zenbait solasen emaitza akustikoak aurkezten ditugu. Badirudi euskalki honetan ere, azentuaren pertzepziorako izari nagusia oinarrizko maiztasuna dela; hortaz, hartutako neurri guztiak hertzetan emanen ditugu.

### 2.1. EUGI

#### Silaba bikoak (ó-o):

gwatzia	231	156
bidja	262	174
malda	260	238
pentzëa	254	189
putzwe	253	227
zerwe	237	172
argje	224	175
loya	277	210
burwe	240	199
bjarrja	227	173
begje	271	167
agöa	214	175
lepöa	225	177
besöa	215	169
eskwe	246	213
erje	242	179
zangöa	215	165
erwa	213	171
itswe	231	189
mutwe	289	192
maingwe	256	182
aizpe	225	153
andrëa	245	162
aurre	267	184
urtja	245	165
astja	192	152
alkja	227	172
orma	254	175
media	240	180

#### Hiru silabakoak (o-ó-o)

atarje	222	238	172
kedarrja	207	227	162
maaya	221	243	193
oyana	175	213	161
ugeldja	221	283	193
itseswa	182	258	168

errotá	220	232	183
baratzëa	190	210	170
karríke	204	250	192
iturrje	216	233	170
pareta	195	218	178
iruzkje	227	261	184
izerra	178	249	172
elurre	222	295	209
goíbela	195	259	228
arpegje	204	253	186
sudurre	198	264	200
agine	220	267	187
kokotza	188	240	176
txintxurrje	219	253	169
bizkerra	232	253	174
soinburwe	225	306	222
ukondwa	200	239	170
belaune	205	241	175
kopeta	201	257	189
odola	208	233	162
goñata	190	233	170
senarra	201	226	171
gizona	214	234	175
maztekje	207	234	160
media	206	246	180

#### Lau silabakoak (o-o-ó-o)

itesurëa	232	232	277	181
azazkala	196	215	226	188
andregaya	203	200	214	174
astjezkena	216	241	252	173
ortzilerja	214	216	222	173
arrantzalje	222	246	277	171
media	213	225	244	176

### 2.2. USETXI

#### Silaba bikoak (ó-o)

beitje	219	202
leyöa	222	180
maya	218	168
gwatzja	208	180
errje	249	182
bidja	227	179
mendje	239	197
weldëa	244	170
putzwe	259	242
zerwe	242	168
aizja	228	193
argje	240	206
burwe	257	193

bilöa	254	180
bjarrje	195	166
begje	208	164
agöa	229	182
ortza	214	186
mie	217	187
lepöa	222	170
besöa	233	170
eskwe	222	135
erje	242	179
azpje	232	180
zangöa	229	187
eröa	217	175
itswe	238	163
sorra	252	175
mutwe	285	183
media	232	180

### Hiru silabakoak (o-ó-o)

atarje	188	217	152
itsasöa	214	258	179
elize	197	233	173
karrike	202	219	171
iturrije	226	259	221
iruzkje	209	248	157
ilergje	206	231	188
izerra	233	245	142
elurre	236	271	226
aurpegje	221	250	189
sudurre	206	219	169
kokotza	219	241	222
bizerra	224	250	187
bekaña	222	249	191
txintxurrje	223	249	164
bulerra	198	235	182
belaune	205	214	174
odola	193	201	184
media	212	238	181

Agertzen diren oinarrizko azentu-  
-eskemen arabera, herri biotako  
emaitzak honako hauek ditugu:

Azentuduna	1. silaba	2. silaba	3. silaba	Orotara
EUGI	240	246	244	243
USETXI	232	238	-	234
Azen. Aurre.	1. silaba	2. silaba	-	Orotara
EUGI	206	225	-	209
USETXI	212	-	-	212
Azen. Oste.	2. silaba	3. silaba	4. silaba	Orotara
EUGI	180	180	176	180
USETXI	180	181	-	181

Aztertu ditugun datuen interpretazio fonologikorako, Esteribarko azentua finkoa dela esan dezakegu, ez dago solas markaturik eta; bestalde, azentuak ez du inongo funtzio bereizgarririk betetzen, esate baterako singularrak eta pluralak bereizteko. Azentua, 2 ←] erregelaren arabera, afijazioaren ostean ezartzen da. Adibidez:

	alaba + a	seme + a	idi + a	lengusu + a
Afijaz.	alabaa	semea	idia	lengusua
Bokalen				
egokitza.	alaba	semja	idje	lenguswe
2 ←]	alába	sémja	ídje	lengúswe








Oinarrizko azentu eskema hau berba isolatuetan, eten baten aurrean edo esaldiaren amaiera absolutuan baino ez da gertatzen. Amaiera absolutua ez denean azentua azken silabaraino mugitzen da, Usetxiko ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

	Singularra	Plurala
	amaieran hasieran	amaieran hasieran
lenguswe(k)	241-246-183	230-245-300 224-266-221 226-240-281

Badirudi, hortaz, bigarren azentu-  
-mota hau esaldia osatzeko sintaxia-  
ren erregelak ezarri ostekoa dela. Jarraian Eugiko esaldi oso batzuen azentuak ematen ditugu adibide gisa:

Karri tút pipérrak.  
Yan tú maláurjek.  
Ongí nago.  
Itxerá nae.  
Amá kanporá dae.  
Nai dút afáldu.  
Nai dút sendátu.  
Nai dút desayunétu.  
Nai dizút beiretú zúri.  
Alabák yán du.  
Alabék yan dúte.  
Au dé alabéndako.  
Ari dé oyanéköa.  
Arrék erran diré égje.  
Zwék torri zaté berándu.

Torko dá guréki.  
Zú etzázá eméngwa  
Amá eztá émen.



Aditzen jokabidean gauza bera ikus dezakegu, eman ditugun adibideez gain hona hemen beste zenbait esaldi:

- Bota dú arrí bet.
- Botatzén du.
- Botako dú arrí bet.
- Bete dú báswa.
- Betetzén du.
- Torrí de.
- Tortzén da.
- Torrikó da.
- Man djót líbrwe.
- Máin djjo.
- Moztu dú belárra.
- Moztén du.
- Moztikó du.

### 3. Deklinabidea

Ataltxo honetan deklinabide-alorrean jaso ditugun solasen paradigmak ematen ditugu. Azentu-alorrean ikusi dugun eskema azentual berbera gertatzen da, destinatiboa eta adlatiboan izan ezik, kasu hauetan azentua ez baita azkenurreko silaban paratzen, genitiboaren atzizkian baino, hau da: *alabáindako*, *alabéndako*, *alabáingana*, *alabéngana*, e.a. Oinarritzat Eugiko lekuko nagusiaren paradigmak emango ditugu amaiera absolutuan:

ALABA	
alába	alábak
alábak	alábek
alábai	alábei
alabáine <sup>4</sup>	alabéna
alabáiki	alabéki
alabáindeko	alabéndako
alabáingana <sup>5</sup>	alabéngana

SEME	
sémja	sémjak
sémjak	sémjek
sémjai	sémei
semjáine	seména
semjáiki	seméki
semjáindeko	seméndako
semjáingana	seméngana

IDI	
ídje	ídjek
ídjek	ídjek
ídjei	ídjei
idjéine	idjéna
idjéiki	idjéki
idjéindeko	idjéndako
idjéingana	idjéngana

OLLO	
óllwa	óllwak
óllwak	óllwek
óllwai	óllwei
ollwáine	ollwéna
ollwáiki	ollwéki
ollwáindeko	ollwéndako
ollwáingana	ollwéngana

LENGUSU	
lengúswe	lengúswek
lengúswek	lengúswek
lengúswei	lengúswei
lenguswéine	lenguswéna
lenguswéiki	lenguswéki
lenguswéindeko	lenguswéndako
lenguswéingana	lenguswéngana

ITXE	
ítxëan	itxétan
itxéra	itxetára
itxéti	itxétaik
itxékwa	itxetákwa
itxeráño	itxetaráño

MENDI	
méndjen	mendjétan
mendíre	mendjetára
mendíti	mendjétaik
mendíkwa	mendjetákwa
mendiráño	mendjetaráño

Bizigabeen deklinabidea zertxobait aldatuta eman zipun Eugiko beste lekuko batek:

OYAN	
oyánëan	oyanétan
oyanéra	oyanetára
oyanetík	oyanetaik
oyanéköa	oyanetáköa
oyaneráino	oyanetaráino

#### 4. Gramatika-kategoria zenbait

Atal honetan Eugiko erakusle, izenorde pertsonalak, galdekariak, leku aditzondoak eta zenbakiak ematen ditugu.

Erakusleak:

HAU	HORI	HURA
au	óri	úre
ónek	órrek	árrek
ónei	órrei	árrei
onéna	orréna	arréna
onéki	orréki	arréki
onéndako	orréndako	arréndako
onéngana	orréngana	arréngana
únten	órtan	ártan

4. Eugiko beste lekuko batek *alabéine*, *alabéiki*, *alabéindeko* eta *alabéingana* eman zituen.

5. Usetxin, Eugin ez bezala, adlatiboaren atzizkiaren lehen bokala asimilatu ere egiten da; adibidez: *lenguswéingena*.

HAUEK	HORIEK	HAIEK
ok	óyek	áyek
ókek	óyek	áyek
ókei	óyei	áyei
okéna	oyéna	ayéna
okéki	oyéki	ayéki
okéndako	oyéndako	ayéndako
okéngana	oyéngana	ayéngana
okétan	oyétan	ayétan
oketára	oyetára	ayetára

Izenorde pertsonalak:

NI	GU	ZU
ni	gu	zu
nik	guk	zuk
néri	gúri	zúri
nérja	gúrja	zúrja
neréki	guréki	zuréki
nerétako	gwétako	zwétako
nerégana	gurégana	zurégana

ZUEK	BERA	BERAK
zwek	béra	bérak
zwek	bérak	bérek
zwei	bérai	bérei
zwéna	beráine	beréna
zwéki	beráiki	beréki
zwéndako	beráindeko	beréndako
zwéngana	beráingana	beréngana

Leku aditzondoak:

HEMEN	HOR	HAN
émen	or	an
onéta	orráta	aráta
eméndi	órta	ándi
eméngwa	órkwa	ángwa
ónat	órrat	árat
onaráño	orraráño	araráño

Galdekariak:

NOR	ZEIN	ZER
nor	zein	zer
nork	zeñek	zeri
norei	zeñei	zetas
norena	zeñena	zetako
noreki	zeñeki	zenbat
norendako	zeñendako	
-	zeñengana	

NON	NOLA-NOIZ
non	nola
nora	nolakwa
nöata	noiz
nondi	noiztik
nongwa	noizko
nöaño	

Galdekariak euron azken silaban hartzen dute azentua eta bertatik oinarrizko maiztasuna jaitsi egiten da; adibideotan azentuaren kokagunea ikus daiteke:

Nór torri da?  
 Noréi erran djozu?  
 Au nórena da?  
 Au nórendako da?  
 Nolá in duzu?  
 Zéin de ori?  
 Nogwá zara zu?  
 Norá zoazi?

Zenbakiak:

bat	bíde
íru	lau
bortz	sei
zázpi	zórtzi
bedrátzi	ámar
améka	amábi
amáiru	emezórtzi
emerétzi	ógei
oitémar	berrógei
berrogeitémar	irwetanógei
irwuetanogéi te ámar	lawetanógei
lawetanogéi te ámar	égun
berrégun	míle

## 5. Lexikoa

Ataltxo honetan jaso ditugun solas guziak paratuko ditugu. Gehienak isolatuki jaso ziren; berori dela eta, azentua azkenaurreko silaban paratu dugu kasu guzietan. Hala ere, zenbaitetan, solas konposatu luzeetan batik bat, ezin izan dugu azentuaren lekugunea zehaztu eta nahiago izan dugu ez paratzea. Bestalde, kasu

gehienetan mugatu singular erara jaso izan dira, horregatik ere, euskara estandarraren bertsioan mugatu singularra darabilgu. Solasen bat herri bietan berdin jaso izan dugunean ez dugu deus ere adieraziko; bestenaz, Eugikoeak (E) eta Usetxikoeak (U) izanzen dute aldamenean.

## A

abrátza (U): aberatsa.  
aburrítu (E): aspertu.  
abwélöa (E): aitona.  
adárta (E): adarra.  
afáldu: afaldu.  
afárje: afaria.  
agarrátu: oratu, heldu.  
agértu: agertu.  
agíne: hagina.  
ágöa: ahoa.  
agótza: lastoa.  
agóztwe (E): abuztua.  
áidja (E): haizea.  
aire gaiztöa (U): tximista.  
áise: aisa, erraza.  
aiskídja (U): adiskidea.  
áite: aita.  
aiteyarréba: aitagarreba.  
áitu: entzun.  
aizéman (E): putz egin.  
áizja: haizea.  
aizkóra: aizkora.  
áizpe: ahizpa.  
akabátu (E): ahitu.  
akátu (U): ahitu  
akérra (E): akerra  
alába: alaba  
albañíle (U): igeltseroa.  
aldápa (U): aldapa.  
áldiz (E): aldiz, biderrez.  
álkja: ahalkea.  
álkje (U): aulkia.  
altxátwik (E): gorderik.  
altzíne: aintzina, aurea.  
altzúrre: aitzurra.  
alúbjek (E): indabak.  
amayarréba: amagarreba.  
áma: ama

amétsa: ametsa.  
ametsain (E): amets egin.  
ametsetan aritu (E): ametsetan aritu.  
amorráya (E): amoarraina.  
amútxi: amona.  
anáya: anaia  
ándrëa (E): emaztea.  
andregáya: emaztegaia.  
ándrja (U): emaztea  
apéza: apezka.  
apráxwek (E): aparexuak.  
apríle (E): apirila.  
apútxi (U): aitona.  
arágje: haragia.  
arána (E): okarana.  
árbje (E): harbia.  
árdje: ardia.  
árdwa: ardoa.  
argjástja (U): egunsentia.  
árgje: argia.  
argítu: argitu.  
argítzja (E): egunsentia.  
argizérje (E): argizaria.  
arítze: haritza.  
aríztje (U): hariztia.  
árja (E): harea.  
árje: haria.  
armimáwa (E): armiarma.  
arótza: arotza, erremintaria.  
arpégje (E): aurpegia.  
arrantzálje (E): arrantzalea.  
arrantzárje (U): arrantzalea.  
arráspa: eskuarea.  
arratóya: arratoia.  
arrátsa: arratsa, gaua.  
arráusje (E): aharrausia.  
arráya (E): arraina  
árra: harra.  
arréba: arreba.  
arreglátu (E): konpondu.  
árrje: harria.  
arróztja: arraultza.  
ártjo (U): arte; "egon dire bi ordwek artjo."  
ártöa: artoa.  
ártu: hartu  
artzáya: artzain; "ori dago artzai ameriketan (U)."



asarrétu (E): haserretu.  
asárre (E): haserre.  
asárrja (E): haserre, errieta.  
ási: hasi.  
áski: aski  
asótsa (E): zintz egin.  
asteléna: astelehena.  
ástja: astea.  
astjártja: asteartea.  
astjezkéna: asteazkena.  
asúñe (E): asuna.  
atárje: atea, ataria.  
atórra (E): atorra.  
átra: 1. irten. 2. atera.  
atsáldja: arratsaldea.  
atzapárra (E): atzaparra.  
atzéndu: atzendu, ahantzi.  
átzo: atzo.  
áundje: handia.  
áunitz: aunitz.  
áunke: zaunka.  
áuntze (E): ahauntza.  
aurpégje (U): aurpegia.  
áurre: haurra.  
ausárki (E): ugari.  
ausérki (U): ugari.  
áutsi: hautsi.  
auzkúmja (E): ahunzkumea.  
azála (E): azala.  
azárwa (E): azaroa.  
azazkála: 1. atzazala. 2. apatxa.  
áza (E): aza.  
azérje (E): azeria  
ázi 1. hazi. 2. erazi.  
azkóna (E): azkonarra.  
ázpje: hanka.  
aztála: orpoa.  
azukérja (U): azukerea.  
azúle: urdina, azula.

## B

bagádje (U): pagadia.  
bágöa: pagoa.  
báljo: balio.  
báltsa (E): ur baltsa.  
baratxúrje (E): baratxuria.  
barátzëa: baratzea, ortua.  
bárnjan: barnean.

bártza (E): bartza.  
basórdja (E): basurdea.  
béa: behia.  
beaxúne (E): behazuna.  
bégje: begia.  
beirétu: begiratu.  
beitégje (E): korta.  
béitje: etxeko sarrera.  
beitiko atarje (U): sarrerako atea.  
bekáña: bekaina.  
belárra: belarra.  
beláune: belauna.  
beldúrre: bildurra.  
bélja (E): belea.  
béltza: beltza.  
berándu (E): berandu  
bérdin: berdin; “neri berdin zaide (U).”  
bérdja: berdea.  
bérrje: berria.  
bértze: bertze, beste.  
béröa (U): beroa.  
bérwa (E): beroa.  
bésöa: besoa.  
beso motza (U): besamotza.  
besotáköa: besoetakoa.  
bésta (E): jaiá.  
béti: beti  
bídjá: bidea.  
bildótsa (E): bildotsa.  
bíldu: bildu.  
bilétu: bilatu, aurkitu.  
bílöa: biloa, ilea.  
biríke (E): birika.  
bizérra: bizarra.  
bizerrándje (E): bizar handia.  
bizkérra: bizkarra.  
bjárrje: beharria, belarria.  
bjer: bihar.  
bjórra (E): behorra.  
bjótza: bihotza.  
bjúrtu: bihurtu.  
bóltsa (E): poltsikoa.  
bóta: 1. bota. 2. erori.  
brása (U): txingarra.  
bulérra (U): bularra.  
burdíne (E): burdina.  
burtxíntxe: urtxintxa.  
burútu: burutu, garia eta.

búrwe: burua.  
burwen (U): buruan; “bi ordwen burwen  
joan ze (U).”  
buzténa (E): buztana.

## D

dáitzi (E): behiak jaitsi.  
déitzi (U): behiak jaitsi.  
denbóra: denbora.  
desafilétu (E): kamuztu, akeztu.  
desayunétu: gosaldu.  
dírwe: dirua.  
dúltzja: gozoa.

## E

ebáki: ebaki.  
ebátsi: ebatsi.  
egála (E): hegala.  
egárrje: egarria.  
égje: egia.  
égon: egon.  
egósi: egosi.  
egúne: eguna.  
egúrre: egurra.  
egwérdje: eguerdia.  
eilárje (E): artilea.  
éizje: ehiza.  
éldu: heldu, [etorri trinkoaren ordaina];  
“eraunsje eldu de.”  
elíze: eliza.  
elórrje (E): elorria.  
éltzja: eltzea.  
elúrre: elurra.  
ellegátu: ailegatu.  
éllja (U): artilea.  
emán: eraman.  
émja: emea.  
entendátu: entelegatu, ulertu.  
epéla: epela.  
éran: edan.  
eráunsje (E): erauntsia.  
eréki: 1. erain. 2. ireki.  
éri: gaixorik.  
eritesune: eritasuna.  
érje: atzamarra.  
erlaztáña (E): erlaztaina.  
érlja (E): erlea.

éröa (U): eroa.  
erósi: erosi.  
érran: erran.  
erráña (E): erraina.  
erráya: birika.  
érre: erre.  
erritarrak (E): herritarrak.  
érrje: herria.  
erróka: gorua.  
erróta: errota.  
errwéda (U): txirrinka.  
értsi: hertsia.  
érwa (E): eroa.  
esénja (E): esnea.  
eskárdak (E): ezpalak.  
eskóla (E): eskola.  
eskumutúrre: eskumuturra.  
éskwe: eskua.  
esperátu: itxaron.  
étzi: etzi.  
éze (U): heze.  
ezkérra: ezkerra.  
ezkúrre (U): ezkurra.  
ezpáñak: ezpainak.  
ezpéla (E): ezpela.  
éztje (E): eztia.  
eztúle: eztula.  
ezúrre: hezurra.

## F

famílje (U): familia.  
fu man (U): putz egin.  
fíte (E): fite.  
flórja (E): lorea.  
fránko: nahiko.  
frotátu (E): igurtzi.  
frúte: fruitua.

## G

gába: gaua.  
gáizki: gaizki.  
gáiztöa: txarra.  
gáldein (E): galdegin, galdetu.  
gáldin (U): galdegin, galdetu.  
gáldu: galdu.  
gáldwik (E): galdurik.  
ganbára: iraganbidea.

ganbéla (E): azka.  
gántswa (E): antzarra.  
gáñjan: gainean.  
garagárta (E): garagarra.  
garbitu: garbitu.  
gárbje: garbia.  
gárje: garia.  
gárra: garra.  
gátwe (E): katua.  
gátza (E): gatza.  
gatzúre (E): gatzura.  
gaur (E): gaur.  
gázi (E): gazi  
gastáñak (E): gatzainak.  
gázta (E): gazta.  
gáztja: gaztea.  
gelíkje (U): behikia.  
gélje (U): behi haragia.  
gerézje (E): gerezia.  
gerrúntzja: guntzurruna.  
gezúrre: gezurra.  
gibéla: 1. gibela. 2. atzea.  
giltxáurre: intxaurra.  
gíltze: giltza.  
gízen: gizen, lodi.  
gizóna: gizona.  
gogórta (E): gogorra.  
goibéla: hedoia.  
góiti (E): goi.  
góizik (E): goiztik.  
góldja: goldea.  
goñáta (E): koinata.  
górdin: gordin.  
goróstje (E): gorostia.  
górje: gorria.  
gósëa (U): gosea; "gosëak ili nago."  
góxwa: goxoa.  
gránwa: alea.  
gríllwa: kilkerra.  
gúti: guti.  
gwátzja: ohea.

## I

ibíli: ibili.  
idíkõa (E): idiskoa.  
ídje (E): idia.  
íen: igan.

ietzérri (E): iratzarri.  
igéndja (U): igandea.  
igítja (E): igitaia.  
ikési (U): ikasi.  
ikétza (E): ikatza.  
ikúsi: ikusi.  
il: hil.  
ilbéltza (E): urtarrila.  
ilabétëa (U): hilabetea.  
ilebétja (E): hilabetea.  
ilérgje: ilargia.  
ilérra (E): ilarra.  
ilúndu (U): ilundu.  
ilúne: iluna.  
ilúntzja: iluntza, ilunabarra.  
illéba (E): iloba.  
in: egin.  
inérja (E): saguzaharra.  
íntze: ihintza  
ípõa (E): zotina.  
íraun: iraun.  
irautréta (U): ihauteria.  
irétsi: irentsi.  
irétzëa (E): ira, iratzea.  
iríkin: irakin.  
iríne (E): irina.  
irítëa: igitaia.  
írrin: irri egin.  
irúzkje: eguzkia.  
itesúre (U): itesurea, itogina.  
itsásõa (U): itsasoa.  
itsésõa (E): itsasoa.  
ítswe: itsua.  
itúrrje: iturria.  
ítxëa: etxea.  
ítzëa (U): iltzea.  
itzéli: itzali.  
itzérri (U): itzarri.  
iyéndja (E): igandea.  
izéba: izeba.  
ízen: izan.  
izéna: izena.  
izérra: izarra.  
izilárje (U): ehiztaria.  
izítu (U): izutu.  
izótza: izotza.  
iztérje (E): ehiztaria.

## J

ja ere: deus.  
 jaungóikwa (U): jaungoikoa.  
 jaingóikwa (E): jaungoikoa.  
 jangoikwen txakurre (E): ipurtargia.  
 jangoikwén paxa (E): ostadarra.  
 jöan: joan.

## K

káfie (E): habia.  
 kaldúrre (E): kaldorra.  
 kamústu: amoztu.  
 kanabíte (U): kanibeta.  
 kanílle (U): orkatila.  
 kánpöan: kanpoan.  
 karakóla: karakola.  
 karríke: karrika.  
 kárrí: ekarri.  
 kárrwa: gurdia.  
 kaskarabárra: txingorra.  
 káskwa: tontorra.  
 káswa (U): zalea.  
 katalingórrje (E): marigorringo;  
 “katalingorri bjer iruzki zuri.”  
 kazóla: kazola.  
 kóa: kea.  
 kedárrja: kedarrea.  
 kéndu (U): kendu.  
 kírets: garratz.  
 kíswe (U): kisua, karea.  
 kokótza: kokotza.  
 konéjwe (E): untxia.  
 konfjántza (E): konfidantza.  
 konpóndu (E): konpondu  
 konprendítu (E): ulertu.  
 kóntent (E): pozik.  
 kontestátu: erantzun.  
 kopéta: kopeta, bekoki.  
 koropíllöa (E): korapiloa.  
 kukúsöa: arkakusoa.  
 kúlpja (E): errua.  
 kutxíllwa (E): ganibeta.  
 kwártöa (U): gela.  
 kwártwa (E): gela.

## L

lamiskétu (U): lamiskatu.  
 lamixkétu (E): lamiskatu.  
 lána: lana.  
 láñöa: lainoa.  
 lárra (E): sasia.  
 lárrje (E): izara.  
 lárrwe: larrua.  
 larunbéta: larunbata.  
 láune (E): laguna.  
 láya (E): laia.  
 lékak (E): lekak.  
 lengúsje: lehengusina.  
 lengúswe: lehengusua.  
 lepagórrje (E): erbinudea (?)  
 lépöa: lepoa.  
 léyöa: leihoa.  
 léywa: leihoa.  
 líbrwe: liburua.  
 lizérra (E): lizarra.  
 lóya: lohia.  
 luména (U): lurmena.  
 luméndu (U): lurmendu.  
 lúrre: lurra.  
 lúzja: luzea.

## LL

llabúrre (E): laburra

## M

maáya (E): mahaia.  
 maéztëa (E): maiatza.  
 mágrak (E): urdaiaspikoa.  
 máingje (U): herrena.  
 máingwe (E): herrena.  
 makíle: makila.  
 makúrre: okerra.  
 málda (E): malda.  
 malúbje (E): marrubia.  
 mállwe: mailua.  
 man: eman  
 mándöa (E): mandoa.  
 mánta (E): manta.  
 maripósa (E): tximeleta.  
 márja: barea.

márxöa (E): martxo.  
mastikétu (E): mamurtu.  
matáxa (U): mataza.  
mátsa: mahatsa.  
máya (U): mahaia.  
maztékje: emakumea.  
méa: argala.  
meárra: estua.  
méndje: mendia.  
míe: mihia.  
míne: mina.  
mogítu (U): mugitu.  
móitu (E): mugitu.  
móztu: moztu.  
múle (E): mandoa.  
múñek: muinak  
muskérra (E): muskerra.  
mutíköa: mutikoa.  
mutíle: morroia  
mutúrre (E): muturra.  
mútwe: mutua.

## N

nabála: labana.  
náski: naski.  
náusje: nagusia.  
negarra (U): malkoa, negarra;  
“begjetaik badario negarra.”  
negarra in (E): negar egin.  
negarrin (U): negar egin.  
nekátwik (E): nekaturik.  
nesáköa: neska.  
neskátö (E): neskamea.  
neskátwa (U): neskamea.  
njétöa: iloba.

## O

obeki: hobeki.  
obena: hoberena.  
odóla: odola.  
ógje: ogia.  
oin (U): deitu.  
ojala (U): uxela; “ojala torri balei ori.”  
olígöa (E): orioa.  
ólöa (E): oloa.  
ollánda (E): oilanda.  
ollárra: oilarra.

ollásköa: oilaskoa.  
olláskwa (E): oilaskoa.  
óllwa: oiloa.  
óna: ona.  
óndu: ondu, heldu.  
ongárrje: ongarria.  
óngi: ongi.  
oñazja (U): oinazea.  
oñaztúre (E): oinaztura.  
oñestule (U): oinaztura.  
orbéla (E): orbela.  
órdwe: ordua.  
órje: horia.  
órma (E): izotza.  
ormátu (E): izoztu.  
oroitu: oroitu.  
orrátza: orratza.  
ortóska: trumonada.  
ortótsa (U): trumoia.  
órtza: hortza.  
ortzegúne: ortzeguna.  
ortzilérja: ortzilarea.  
osába: osaba.  
ostátwe (U): ostatua.  
óstwa: hostoa.  
ótja (E): otea.  
otsáilla (E): otsaila.  
ótswa (E): otsoa.  
ótza: hotza.  
oyála (E): oihala.  
oyána: oihana.  
ozpíne (E): ozpina.

## P

pañólwa: zapia.  
parátu (U): paratu, ipini.  
paréta: pareta.  
patata zorrje (E): patata zorria.  
pátu (E): paratu.  
pátwa (E): ahatea.  
patxarána (E): patxarana.  
péntzëa (E): landa.  
pétxöa (E): bularra.  
pikórra (E): alea.  
píkwe (E): 1. ikoa. 2. mokoia.  
pínwe (E): pinua.  
pipérra: piparra.  
pisket (U): piska bat.

plánta (E): landarea.  
plómwa (E): beruna.  
plúmek (E): lumak.  
pollíte: polita.  
pórrwe: porrua.  
própjie (U): galanta, ederra.  
pútzwe: putzua.  
puztérre (E): 1. uztarria. 2. sugelindera.

## S

sagárra: sagarra.  
sagarróya (E): trikua, sagarroia.  
ságwe (E): sagua.  
sakéla (E): sakela.  
sáldu: saldu.  
saltarínek (E): saltamatxinoak.  
samúrtu (U): borrokatu.  
sárdja (E): sarda.  
sárrí (E): sarri, laster.  
sártu: sartu.  
sáskje: saskia.  
satórra (E): satorra.  
sáuköa (E): saukoa.  
séga (E): kodaina.  
segítu: segitu.  
sémja: semea.  
senargáya: senargaia.  
senárre: senarra.  
sendátu: sendatu.  
síllëa (U): aulkia.  
síllja (E): aulkia.  
sinétsi (U): sinetsi.  
siñétsi (E): sinetsi.  
sóbra: sobera; “ori de sobra aundje (U).”  
soinbúrwe (E): sorbalda.  
sólwa (U): soloa, soroa.  
sóña (U): sorbalda.  
sorgíne: sorgina.  
sórra: gorra.  
sórtu: 1. gortu. 2. jaió.  
sósa (E): dirua.  
sóso (E): geza.  
súbja (E): sugea.  
sudúrre: sudurra.  
sukéldja: sukaldeia.  
súrkwa (E): ildoia.  
swíye (E): suhia.

## T

tállwe (U): sega, kodaina.  
tánta: tanta.  
tellátwe: teilatua.  
térkwa (U): tematia.  
tipúle: tipula.  
titérja: titerea.  
tórpja (U): torpea.  
tórrí: etorri.  
tréfla (E): trebola.  
trípe: sabela.  
tripóta (E): odolostea.

## TT

ttárre: txikia.

## TX

txakúrre: txakurra.  
txérrje: txerria.  
txílköa (E): zila.  
txingérra: urdaí.  
txingerrazala (E): urdaiazala.  
txintxérja (E): zizarea.  
txintxúrre (E): zintzurra.  
txirribíle (E): gorua.  
txirríkja (E): txirrinka.  
txirtxigíte (E): txirri-txirri.  
txistórra (E): txistorra.  
txokándrëa (E): etxeoandrea.  
txokándrja (U): etxeoandrea.  
txórje: txoria.  
txorrostarrje (U): zorrotzarria.  
txorrosteko arrje: zorrotzarria.  
txorróstu: zorroztu.  
txúrje (U): zuria.  
txútik: zutik.

## U

udérja (E): udarea, madari.  
ugéldja (E): ibaia.  
ukítu: ikutu.  
ukóndöa (U): ukondoa.  
ukóndwa (E): ukondoa.  
úlje (E): eulia.  
umedádja: hezetasuna.  
umédwa: heze.  
untzérna (E): alfafa.

untzóstöa (E): untzorria.  
úrbil: hurbil.  
urbíldu (U): hurbildu.  
urdíñe (E): grisa.  
úre: ura.  
úrje: euria.  
úrkje (E): urkia.  
úrrek (E): urretxak.  
urríne (E): usaina.  
urríñe (U): usaina.  
úrrja: urrea.  
úrrje (E): iraila.  
úrtja: urtea.  
ustéldu: usteldu.  
úsua (E): usoa.

## X

xáya (U): jaia.  
xíxja (E): ziza.  
xúxen (U): zuzen.

## Y

yago: gehiago; “eztut bide beño yago (U).”  
yákin: jakin.  
yan: jan.  
yárrri: jarri, eseri.  
yáune: jauna.  
yáutsi: jaitsi.  
yéndja: jendea.

yolása: solasa, hitz.  
yolástu (U): solastu, hitz egin.  
yorrátu: jorratu.  
yósi: josi.

## Z

zabála: zabala.  
zakárra: itsusia.  
zaldíköa (E): zaldikoa.  
záldje (E): zaldia.  
zálje: burruntxalia.  
zálkja (E): zalkea.  
zángöa: oina.  
záñak: zainak.  
zápöa (E): zapoa.  
zárra: zaharra.  
zártu (E): zahartu.  
zeláya (U): zelai, lau.  
zérwe: zerua.  
zezéna (E): zezena.  
zikíndu: zikindu.  
zikíne: zikina; “weldja dago zikin.”  
zikíröa (E): zikiroa.  
zilérra (E): zilarra.  
zórrje (E): zorria.  
zorróka : zurrunka.  
zurgíne: zurgina, arotza.  
zúrje (E): zuria.  
zuzéna (E): zuzena.